



ZESTOAKO UDALA

142 zenbakia

JOSE FRANCISCO MENDIZABAL IRIGOIEN, Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakari jaunak, ondorengoa kontuan hartuz:

- a) 2019ko maiatzaren 7an kontratazio mahaiak eginiko bileran, Zestoako Udalaren sozio-ekonomia aholkularitza zerbitzua SIADECO enpresari esleitzea proposatu zuen eta A sobrea eta pleguen XIX ataleko dokumentuak aurkezteko eskatu zitzaien.
- b) Erabakia SIADECO.ri jakinarazi zitzaion eta behin betiko bermea gauzatu zezan eskatu zitzaion.
- c) Behin betiko bermea gauzatu da eta eskaturiko dokumentuak ere bai.

EBAZTEN DU

Lehena.- Zestoako Udaleko sozio-ekonomia aholkularitza zerbitzua SIADECO enpresari esleitzea 17.400,00 eurotako zenbatekoarekin, BEZa kanpo.

Bigarrena.- Ebazpen hau SIADECO.ri jakinaraztea eta kontratua sinatzera etortzeko eskatzea.

Hirugarrena.- Tokiko Gobernu Batzarrak ospatuko duen hurrengo saioan Alkate Ebazpen honen berri ematea.

Zestoan, 2019ko maiatzaren 14an

ALKATEAK,